



3000. urtera arte euskaraz

Zer nolako egoera biziko du euskarak Donostian XXI. mendean? Ez da erantzuteko galdera erraza. Izan ere, euskarak datozen urteotan izan dezakeen bilakaera faktore askorenpean dago.

faktoreetako bat administrazioek hizkuntzaren normalizaziorako datozen urteotan ezar dezaketen politika da.

Bigarrena, baina ez hartatik garrantzi txikiagokoa, donostiarrek berek hizkuntzaren berreskurapenean joka dezaketen paper garrantzitsua dugu.

Hizkuntzarekin lotutako horrelako pronostiko batek eduki ditzakeen arriskuak ahaztu gabe, Xabier Isasi UEUko kidearengana jo dugu. Isasi irakaslea da EHUko Ibaetako Canpusean, eta hamaika lan egin ditu hiz-

kuntzalaritzaren alorrean.

Euskararekin lotutako bi aurreikuspen egin ditu Isasik orrialdeotan, beti ere 2021. urtera arteko epea hartuz. Lehen euskararen ezagutzari buruzkoa da, eta bigarrena hizkuntzaren erabilerarekin lotuta dago.

Aurreikuspen hauek egiteko, bi iturriez baliatu da Xabier Isasi. Ezagutzarekin lotutako aurreikuspenarako, EUSTAT eta Bigarren Soziolinguistitako Mapa hartu ditu oinarri. Datozen urteotako estimaziorako, aipatu argitalpenean ageri diren 1986., 1991. eta 1996. urteko datuak

hartu dira oinarritzat.

Erabilerari buruzko pronostikoa egiteko, berriz, Euskal Kulturaren Batzarreak 1989tik aurrera lau urtean behin eginiko euskararen kale-erabileraren neurketak dira oinarri. Bi horiek dira, beraz, orrialdeetan topatuko dituzuen aurrikuspenaren zutabeak.

Xabier Isasik dioskunez, "Bildutako datuen boladak edo segidak aztertutik, izandako joerak antzeman ditzakegu eta gerora begira funtzio bat proposatu. Beharbada ausartegia da funtzio matematiko sinple baten bitartez "hazkuntza geometri-

**Euskararen
ezagutzak eta
erabilerak gora
egin dezakete
datozen
urteotan**

koa", geroari buruzko pronostikoak egitea. Gizartea, onerako eta txarrerako, matematikak aurreran daitekeena baino alda-korragoa baita".

"Dena den, -jarraitu du Xabier Isasik- ausart jokatu dugu. Ideia batetik abiatzen gara: euskara berreskuratzen ari da eta, datozen urteotan, berreskuratuko da aurreko urteotako abidan. Ez dugu azalduko datozen urteotako aurreikuspena egiteko erabili ditugun formulak eta prozedurak. Bakarrik aipatu Antiguako Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegia" irakasleak landutako eredu matematikoa erabili dugula. Datuak xume eta labur agertuko ditugu. Irakurleak eta, batez ere, geroak esango du zuzen ibili ote garen gure aurreikuspenetan".

Kontraesanez beteriko hiria

Donostia, demolinguistikari dagokionez, kontraesanez beteriko hiria da. Bere baitara biltzen dira herri nahiko euskaldunak, Igeldo bezalakoak, edo herria izandako auzo nahiko erdaldu-nak, Altxa esaterako.

Xabier Isasiren esanetan, "Donostia hiri txikia da baino nahiko heterogeneoa. Hori eta lehen aipaturiko arrazoiak nahiko izaten dira datuak tentuz irakurtzeko. Nolanahi ere, Donostiak Euskal Herriko beste udalerri askok bezala buelta eman diezaioke euskararen galera prozesuari. Gizaldien arteko erkaketa eginez berehala kontura gaitzek euskarak Donostian belaunaldiz belaunaldi jasan izan duen atzerakadaz".

Euskararen ezagutzaren prospekzioa Donostian 2021 urtera arte

URTEAK	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Donostia	%26	%27,3	%32,6	%35,55	%41,34	%46,54	%52,18	%58,04
Atete	31,3	32,8	37,4	33,49	44,69	48,85	53,4	58,37
Parte Zaharra	42,5	41,8	43,9	47,35	45,35	46,09	46,84	47,61
Alza	13,1	15,7	22,3	22,81	37,96	49,53	64,62	84,31
Amara Berri	25	27,6	33,1	32,08	43,82	50,43	58,02	66,76
Amara Zaharra	23	24,4	30,6	29,98	40,71	46,96	54,16	62,47
Antigua	34,3	35,1	39,7	41,07	45,95	49,44	53,18	57,22
Añorga	57,2	53,7	49,5	41,27	42,84	39,85	37,07	34,48
Bidebieta	14,5	18,7	22,6	24,17	35,22	43,98	54,9	68,54
Egia	20,6	21,9	29,5	31,91	42,25	50,55	60,5	72,4
Erdialdea	31,1	31	34,3	35,98	37,83	39,73	41,72	43,82
Gros	26,8	27,5	32,5	33,44	39,41	43,4	47,79	52,63
Herrera	33,1	32,9	35,9	37,51	38,94	40,55	42,23	43,98
Ibaeta	39,6	41,1	41,1	26,29	42,66	43,46	44,27	45,1
Igeldo	63,9	60	60,8	60,58	57,85	56,43	55,04	53,69
Intxaurreondo	20,3	21,9	28,6	24,1	40,29	47,83	56,77	67,38
Loiola	25,6	28,1	31,6	30,43	39,01	43,34	48,15	53,49
Martutene	32,4	31,3	36,7	37,84	41,57	44,24	47,09	50,12
Mirakontxa	36,9	37,8	41,1	34,48	45,78	48,31	50,99	53,81
Ulía	29,5	29,4	34,7	34,18	40,82	44,27	48,01	52,07

2015ean donostiarren %50 euskaldunak?

Proiekzioak egiterakoan, kontutan hartu da biztanleriaren hazkuntza auzo bakoitzean. "Gure pronostikotan zuzen bageunde, -diosku Isasik-, datozen hamabost urte-

etan euskaldunen kopurua bikoiztuko da Donostian. Hala ere, hazkuntza horrek ozta-ozta ekarriko zukeen biztanleriaren erdira izatea. Donostiako euskaldunok hamabost urte itxaron beharko genuke biztanleen %50 baino gehiago izateko. Jakina, beti ere suposatuz euskarak aurrera egiten duela.

Hau da, Normalkuntza Plana indarrean jartzen dela".

Erdialdeko auzoetan mantsuago

Donostiako auzategien artean, joandako urteotan, bederatzik erakutsi dute biztanleriaren hazkuntza negati-

Goian, 2021 urtera arte euskararen ezagutzak Donostian izan dezakeen garapenaren aurreikuspena. Igeldon eta Añorgan izan ezik, ezagutzak gora egin dezake gainontzeko auzoetan. Datuak ehunekotan emanda daude.

- Gazte moda
- Surf osagarriak



Narrika kalea 3
(Enbeltran izkina)
Tfnoa.: 943-420171

ULUWATU

Denda berria GROS auzoan: **Sekundino Esnaola 33**

BITXIGILEAK

Tardaguila

ERLOJULARIAK

DENDA eta LANTEGIA

Txofre
kalea 4
Tfnoa.:
(943) 278277

Gros auzoan
DONOSTIA



URTE BERRI ON!

Ikatz kalea 9 - DONOSTIA

borako joera: Parte Zaharra, Altza, Antigua, Bidebieta, Egia, Erdialdea, Gros, Herrera eta Martutenek. "Biztanleen galera hori, printzipioz, ez dirudi kaltegarria denik euskararen berreskurapenerako. Izan ere, azkeneko urteotan euskaldunak galdu dituzten auzoak hiru besterik ez baitira: Parte Zaharra, Herrera eta Igeldo. Aipa dezagun Igeldo erdalduntze prozesua pairatzen ari dela", dio Isasik.

Altzak badu bihotzik

Arestian esan dugunez, tentu handiz irakurri behar dira datuak.

Altzakoak eta Igeldokoak, kasurako, harrigarriak dira, sinesgaitzak esango genuke. Izan ere, datuon arabera, euskararen ezagutzak eta erabilerak hazkundera handia izango du datuzen urteotan ia auzo guztietan, baina Altzan harritzeko modukoa izango litzateke hazkunde hori. Igeldon eta Añorgan, berriz, beheranzko joera da nagusi.

Orohar, bestalde, euskararen berreskurapena bizi-

goa izango da Donostia kanpokaldeko auzoetan erdialdekoetan baino.



Euskararen berreskurapena biziagoa izango da Donostia kanpokaldeko auzoetan erdigunekoetan baino.

Euskararen erabileraren aurreikuspena Donostian

URTEAK	2001	2006	2011	2016	2021
Donostia	%8,48	%11,88	%15,55	%20,24	%25,95
Aiete	7,44	14,17	17,37	21,35	26,3
Parte Zaharra	16,17	14,65	15,2	15,78	16,37
Alza	3,24	9,82	17,93	33,52	64,5
Amara Berri	6,77	13,56	18,69	25,94	36,26
Amara Zaharra	5,84	11,48	15,87	22,07	30,91
Antigua	11,71	15,1	17,85	21,15	25,1
Añorga	11,84	12,88	10,94	9,31	7,93
Bidebieta	3,67	8,31	13,66	22,78	38,64
Egia	6,69	12,48	18,8	28,63	44,15
Erdialdea	8,71	9,74	10,87	12,13	13,55
Gros	7,41	10,67	13,26	16,52	20,64
Herrera	9,56	10,39	11,38	12,47	13,67
Ibaeta	4,39	12,75	13,3	13,87	14,47
Igeldo	28,72	25,76	24,29	22,92	21,62
Intxaurreondo	3,65	11,22	16,55	24,64	37,07
Loyola	6,03	10,43	13,22	16,8	21,44
Martutene	9,75	12,03	13,85	15,97	18,43
Miraconcha	7,93	14,97	16,94	19,18	21,74
Ulia	7,78	11,55	13,87	16,69	20,13

Xabier Isasiren ustez, "joerak tankera horretakoak direla uste dugu. Inguruko auzategietan euskararen berreskurapena biziagoa da, eta izango da, erdiguneko auzategietan baino. Kezkagarriak dira, berriz, Igeldo eta Añorgako kasuak. Irakurleak jakin beza, dena den, fidagarritasun gehiago duela Donostia osorako egindako pronostikoak auzo jakin baterako egindakoak baino. Izan ere, multzo handietan funtzio matematikoak hobeto antzematen du joera nagusia multzo txikietan baino. Zuzenketa zorrotzagoak egin bazitezkeen ere, nahiago izan dugu bere horretan uztea irakurleari pronostikoen kontraesanak eta arriskuak begien bistan uztearren".

Igeldo eta Añorga, kasu kezkagarriak

Aurkezten dugun bigarren eta azken taula euskararen kaleko erabilerari

dagokio, erabilera publikoari esan genezake. Bertan 2021. urtera arte, Donostian euskararen erabilera zenbatekoa izan daitekeen aztertu du Isasik. "Erabilera isotropikoa hartu dugu kontuan, hots, euskaldunek euskara erabiltzeko duten probabilitatea. Gutxienezko erabilera maila gisa uler daiteke. Maila horretatik gorakoa denean euskaldunek gizarteak eskaintzen dien aukera baino gehiago ematen dutela ulertu beharra dago. Hau da, erabilera isotropikoaren maila gainditzen denean euskaldunek sozialki euskara erabiltzeko ahaleginean dabiltzalako da".

Ez da gure asmoa izan ezer "asmatzea", aurreikuspen fidagarria egitea baizik. Orohar, Igeldo eta Añorgan ezik, euskararen erabilerak gora egin dezake nabarmen Donostiako auzo guztietan. Bete daitezela aurreikuspen baikorrenak, eta ezerezean gelditu ezkorrak!